

# **XAKEKO TALDEKAKO EUSKAL LIGA.**

**(2018ko urtarrilaren 13tik martxoaren 10era)**

## **OHOREZKO MAILA**

### **2018-03-03: ZORTZIGARREN TXANDA**

**Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) (7'5) – Santa Ana Siglo XXI (Tutera, Nafarroa) (10): 2'5-1'5.**

Josu Tornay Gomez (2.092) (Aretxabaleta/Arlutz) – **Iñigo Ortin Blanco (2.249) (Santa Ana Siglo XXI): 0-1.**

Daniel Roldan Marques (2.189) (Santa Ana Siglo XXI) – **Asier Etxagibel Larrañaga (2.188) (Aretxabaleta/Arlutz): 0-1.**

**Aitor Alcaide Luque (2.057) (Aretxabaleta/Arlutz) – Patxi Sesma Rubio (2.150) (Santa Ana Siglo XXI): 1-0.**

Ainhoa Ortin Blanco (2.029) (Santa Ana Siglo XXI) – Jose Manuel Hernando Casas (1.981) (Aretxabaleta/Arlutz): 0'5-0'5.

**Batalla (Irun, Gipuzkoa) (14) – Altzaga/Itsas Zaldunak (Santurtzi, Bizkaia) (9): 1'5-2'5.**

**Sestao Bizkaialde (Bizkaia) (23) – Donibane Kirol Elkartea (Iruña, Nafarroa) (18): 3'5-0'5.**

Romain Edouard (2.621) (**Sestao Bizkaialde**) – Roi Reinaldo Castiñeira (2.468) (Donibane Kirol Elkartea): 1-0.

Alvaro Bayo Milagro (2.293) (Donibane Kirol Elkartea) – **Salvador Gabriel Del Rio De Angelis (2.520): 0-1.**

Jesus Iruzubieta Villaluenga (2.426) (**Sestao Bizkaialde**) – Jose Manuel Lopez Oros (2.036) (Donibane Kirol Elkartea): 0'5-0'5.

Javier Lizuain Toni (1.834) (Donibane Kirol Elkartea) – **Sergio Trigo Urkijo (2.380) (Sestao Bizkaialde): 0-1.**

**Gros Xake Taldea (Donostia, Gipuzkoa) (17'5) – Orvina A (Iruña, Nafarroa) (21'5): 2-2.**

Alejandro Franco Alonso (2.440) (**Gros Xake Taldea**) – Unai Garbisu De Goñi (2.406) (Orvina A): 0'5-0'5.

Mikel Ortega Lopez (2.232) (Orvina A) – Santiago Gonzalez De la Torre (2.448) (**Gros Xake Taldea**): 0'5-0'5.

**Patrice Etchegaray (2.362) (Gros Xake Taldea) – Pablo Urriza Iricibar (2.217) (Orvina A): 1-0.**

**Sergio Navarrete Delgado (2.217) (Orvina A) – Christian Sanchez Merino (1.851) (Gros Xake Taldea): 1-0.**

**Abadiño (Bizkaia) (7'5) – Calasanz (Gasteiz, Araba) (12): 2-2.**

## **SAILKAPENA**

- 1) **Sestao Bizkaialde A (Bizkaia) – 26'5 puntu.**
- 2) **Orvina A (Iruña, Nafarroa) – 23'5 puntu.**
- 3) **Gros (Donostia, Gipuzkoa) – 19'5 puntu.**
- 4) Donibane Kirol Elkarte (Iruña, Nafarroa) – 18'5 puntu.
- 5) Batalla (Irun, Gipuzkoa) – 15'5 puntu.
- 6) Calasanz (Gasteiz, Araba) – 14 puntu.
- 7) Santa Ana Siglo XXI (Tutera, Nafarroa) – 11'5 puntu.
- 8) Altzaga/Itsas Zaldunak (Santurtzi, Bizkaia) – 11'5 puntu.
- 9) **Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) – 10 puntu.**
- 10) **Abadiño (Bizkaia) – 9'5 puntu.**

## **ORVINAK TITULUARI AGURRA EMAN DIO, IA IA**

Egun txarra talde nafarrena larunbatekooa. Hala ere, ondorioak ezberdinak izanen dira talde bakoitzarentzat.

Orvinak ez zuen emaitza txarrik izan Grosen aurka. Hiru mahietan elo gutxiago zuten Orvinakoek. Beraz, berdinketa balekotzat jo daiteke. Sergio Navarretek aukera ona zuen Christian Sanchez Merinoren aurka eta aprobetxatu zuen. Unai Garbisuk Alejandro Francoren aurka eta Mikel Ortegak Santiago Gonzalez De la Torreren aurka berdinketa lortu zuten. Logikaren barruan sartzen da Unai Garbisurena, baina Mikel Ortegarena bereziki emaitza ona da. Pablo Urrizak, ordea, Patrice Etxegarairen aurka galdu zuen. 150eko elo aldea nabaritu zen, beraz, hor.

Orvinarentzat arazoia izan zen Sestaok Donibanerena aurka lortutako emaitza: 3'5-0'5. Horrela, dagoeneko 3 puntuko abantailaz, tituluia Sestaon berriz geratuko dela ematen du.

Donibane borrokan ari da hirugarren posturako. Sestao ahalguztiduna zuen aurrean. Liga ziurtatzeko 2.621eko Romain Edouard frantziarra jarri zuen. Horrela, Roi Reinaldoren lehenengo porrota iritsi zen aurtengo Euskal Ligan. Alvaro Bayok ere galdu zuen, Salvador Del Rioren aurka. Jose Manuel Lopez Oroisek meritu handiko berdinketa lortu zuen Jesus Iruzubietaren aurka eta Donibanerena ohorea zaindu. Laugarren mahaian, Javier Lizuainek galdu zuen Sergio Trigoren aurka. Hala ere, Grosek puntu bat gehiago besterik ez du eta datorren larunbatean beraien arteko lehian erabakiko da hirugarren postua.

Santa Anak ere galdu zuen, ustekabeen, Arrasate/Arlutzen aurka. Daniel Roldanen eta Patxi Sesmaren porrotak ez ziren espero, baina gerta zitezkeen. Iñigo Ortinek Josu Tornay gainditu zuen. Ainhoa Ortinek berdinketa eskuratu zuen Jose Manuel Hernando Casasen aurka. Azkenean, 2'5-1'5 galdu zuen Tuterako taldeak. Nonbait, puntuen behar gehiago zuen aurkariak. Dena den, mailari etusiko diola ematen du. Calasanzen aurka hondoratzen ez bada, bederen.

**2018-03-10 (15:30, MIRANDA EBRO):  
BEDERATZIGARREN TXANDA (AZKENA)**

Santa Ana Siglo XXI (Tutera, Nafarroa) (11'5) – Calasanz (Gasteiz, Araba) (14).  
Orvina A (Iruña, Nafarroa) (23'5) – Abadiño (Bizkaia) (9'5).

Donibane Kirol Elkarte (Iruña, Nafarroa) (18'5) – Gros Xake Taldea (Donostia, Gipuzkoa) (19'5).

Alzaga/Itsas Zaldunak (Santurtzi, Bizkaia) (11'5) – **Sestao Bizkaialde (Bizkaia) (26'5).**

Arrasate/Arlutz (Aretxabaleta, Gipuzkoa) (10) – Batalla (Irun, Gipuzkoa) (15'5).

## **SANTA ANAK DUERRAZEN BERE HELBURUA LORTZEA**

Miranda Ebron jokatuko da azkeneko txanda eta titulua erabakita dagoela dirudi. Orvinak Abadiñoren aurka izugarrizko balentria egin beharko luke, baina alferrik izanen da Sestaoren hondamena gertatzen ez bada (zaila da hori, Alzaga/Itsas Zaldunak baita bere aurkaria).

Donibanek 3-1 irabazi beharko lioke Grosi hirugarren bukatzeko. Ez du erraza izanen, baina donostiarak zaitasunekin dabilta taldea osatzeko.

Santa Anak Calasanzen aurka jokatuko du. Ez dago garbi zein emaitza beharko duen Ohorezko Mailan mantentzeko, baina Arrasate/Arlutz eta Abadiñorekiko duen aldeari eustea ez dirudi oso zaila. Azkeneko txandan, batzuetan, ustekabeak gertatzen dira. Saihestu beharko du berari dagokiona.

Informazio gehiago: “[http://www.xake.net/2018-fva/6EHT\\_LIGA\\_EQUIPOS\\_EUS\\_18/2018-PD\\_Alineaciones%20y%20sedes.html](http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_Alineaciones%20y%20sedes.html)” eta “[http://www.xake.net/2018-fva/6EHT\\_LIGA\\_EQUIPOS\\_EUS\\_18/2018-DH\\_inicio.html](http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-DH_inicio.html)” webguneetan.

## **LEHENENGO MAILA**

### **2018-03-03: ZORTZIGARREN TXANDA**

**Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) (13'5) – Portugalete (Bizkaia) (12'5): 1'5-2'5.**

**Zarautz (Gipuzkoa) (13) – Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) (17): 1-3.**

**Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (13) – Oberena (Iruña, Nafarroa) (15): 1-3.**

Carlos Varas Gonzalez (2.248) (Conteneo) – Aurelio Vila Dupla (2.131) (Oberena): 0'5-0'5.

**Jesus Javier Cortes Bueno (2.191) (Oberena) – Iñaki Arnaez Gil (2.181)** (Conteneo): 1-0.

**Santiago Sanz Castillo (2.118) (Conteneo) – Jose Miguel Ugalde Ezkurra (2.119) (Oberena): 0-1.**

Pedro Viñal Gutierrez (2.074) (Oberena) – Johnny Fernando Sadusea (2.087) (Conteneo): 0'5-0'5.

**Easo (Donostia, Gipuzkoa) (17) – Orvina B (Iruña, Nafarroa) (11): 2'5-1'5.**

**Elvis Hernandez Sanchez (2.261) (Easo) – Gustavo Jimenez Martin (2.143)** (Orvina B): 1-0.

**Gonzalo Mombiela Martinez (2.141) (Orvina B) – Xabier Bedauert (2.282)** (Easo): 0'5-0'5.

Juan Karlos Lakunza Oyarbide (2.057) (Easo) – Javier Cinza Lopez (2.010)  
(Orvina B): 1-0.  
Egoi Hernandorena De la Cruz (2.043) (Orvina B) – Aritz Abalia Patiño  
(2.095) (Easo): 1-0.

Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) (13) – Danubio (Miranda Ebro) (15): 2'5-1'5.

## **SAILKAPENA**

- 1) **Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) – 20 puntu.**
- 2) **Easo (Donostia, Gipuzkoa) – 19'5 puntu.**
- 3) **Oberena (Iruñea, Nafarroa) – 18 puntu.**
- 4) Danubio (Miranda Ebro) – 16'5 puntu.
- 5) Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) – 15'5 puntu.
- 6) Portugalete (Bizkaia) – 15 puntu.
- 7) **Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) – 15 puntu.**
- 8) **Conteneo (Bilbo, Bizkaia) – 14 puntu.**
- 9) **Zarautz (Gipuzkoa) – 14 puntu.**
- 10) **Orvina B (Iruñea, Nafarroa) – 12'5 puntu.**

## **BERENAK IGOTZEKO AUKERA MANTENDU DU; ORVINA B, ORDEA, IA JAITSITA DAGO**

Bilbon Conteneoren aurka oso emaitza ona lortu zuen Oberenak: 1-3. Ez dirudi aurkaria sasoian dagoenik, baina eloei begiratuta arrakasta handiaz mintza daiteke. Igoerako aukera mantendu du azkenera arte.

Orvina B, aldiz, mailari eusteko borrokan galtzaile atera zen. Ez zen erraza Easoren aurka emaitza ona lortzea. 2'5-1'5 galtzea normaltasunaren barruan sartzen da. Arazoa da emaitza horrekin salbaziorako ia aukerarik gabe geratu dela.

## **2018-03-10 (15:30, MIRANDA EBRO): BEDERATZIGARREN TXANDA (AZKENA)**

Portugalete (Bizkaia) (15) – Danubio (Miranda Ebro) (16'5).  
Orvina B (Iruñea, Nafarroa) (12'5) – Zuri Baltza (Bilbo, Bizkaia) (15'5).  
Oberena (Iruñea, Nafarroa) (18) – Easo (Donostia, Gipuzkoa) (19'5).  
**Endroke (Arrigorriaga, Bizkaia) (20).** – Conteneo (Bilbo, Bizkaia) (14).  
Eguzki (Urnieta, Gipuzkoa) (15) – Zarautz (Gipuzkoa) (14).

## **OBERENA – EASO LEHIAK IGOERA IZANEN DU JOKOAN**

Oberena eta Easoren artean erabakiko da igoerako postu bat. 3-1eko garaipena behar dute nafarrek. Donostiarrek puntu eta erdia. Jo eta ke arituko dira bi taldeak horren bila. Miranda Ebron jokatuko da azkeneko txanda, baina beste mahaietan begira ez dute aritu beharko.

Orvina B saiatuko da Zuri Baltzaren aurka denboraldia txukuntzen. Ez dirudi salbaziorako emaitzen konbinazio bat gerta daitekeenik. Hala ere, ohorea eta eloa jokoan izanen dira.

Informazio gehiago: “[http://www.xake.net/2018-fva/6EHT\\_LIGA\\_EQUIPOS\\_EUS\\_18/2018-PD\\_Alineaciones%20y%20sedes.html](http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_Alineaciones%20y%20sedes.html)”

eta “[http://www.xake.net/2018-fva/6EHT\\_LIGA\\_EQUIPOS\\_EUS\\_18/2018-PD\\_inicio.html](http://www.xake.net/2018-fva/6EHT_LIGA_EQUIPOS_EUS_18/2018-PD_inicio.html)” webguneetan.

**2018-03-03.**

**Iturria: Euskal Xake Federakuntza.**